



## "AYALDE", EUSKALTZALE EREDU ERRENTERRIARRA

Inhor bada-ta, benetan «polifazetiko» izan da beste errenteriar au.

Inprentazale, margolari, euskaltzale. Eta iru oietan, nor-tasan aundiko.

Ez noa, emen lenengo bi alderdiok ikutzera; irugarrena bai-zik: «Ayalde, euskaltzale»; euskaldunberri, euskal-idazle.

Gure «Anthon Valverde'k» etzezakean esan, arako olerkari otxandiarrek ziona:

«Euskaldun jaio nintzan».

Anthon Valverde'ren aurrekoak etziran euskaldunak; etorkiñak ziran. Eta gure mutillak, bere etxean, etzuan euskerarik entzun. Bañan au da arritzekoa: bera bere indarrez, bere borondate leiatsuz, ez euskera lardaskatzera bakarrik, baita artez eta zuzen mintzatzeraz, eta ez nolana idaztera ere iritxi zala. Ayalde'ren euskaldun-berritasunak orixe du benetan arrigarri: euskeraz jator mintzatzeraz, eta ederkitxo idatzi eta itzaldi bikanak emateraño ere iritxi izatea.

\* \* \*

Ayalde'k Euskalerrria bere biotz-biotzean zeramakian beti, maitasun bizkor eta benetan praktikoz. Euskalerrria bera eta Euskalerrriaren gauza guztiak —kultura-gai guztiak— maite zituan benetan. Gure folklorea, oitura zaarrak, doñuak, dantzak, sikologia, enda. Gure gizonak, gure mendiak, gure paisajea... Ayalde'ren margozikirik sarkorrenak, Euskalerrriko oiturakin batean —ikus aren olentzeroketariak eta— Euskalerrriko paisajea izan bait zuten gai berezi. Bere begiak eta bere biotza ta bere izaera guzia gure gauzetaz moskortua zeukan.

«Maitasun praktikoa» esan det ziola Euskalerrriari. Izan ere, inhor asko bizi da gure artean, Iparragirre'k zion bezela, Euskalerrriaz

«..... zoratutikan zabal-zabalik begiak»;

bañan bizi, bi eskuak tolestaturik, ezer egin gabe. Ayalde ez genduan oietakoa. Ordu eder asko zorko zizkion Euskalerrriari; bañan baita ondotoxo ordaindu ere zor ori, bere eskuak

euskalerrriaren alde eten gabe dantzatuaz. Euskalerrriarentzat inhor esker-onekorik izan bada, Ayalde beintzat bat.

\* \* \*

Margolaritzan gure paisajea zuan batez ere izugarri maite; bañan baita euskal-gizona ere bere ezagungarri bereziakin.

Guretzat, ordea, Ayalde'ren alderkirik arrigarri-arrigarriena, Euskerarentzako beti agertu zuan maitasuna zan. Nola galde-tzen zuan, gai ortan bere egarria ase nairik, une bakoitzean jakin nai zuana; eta nola entzuten zuan erantzuten zitzaiona, eta nola gordetzen zuan entzundakoa bere oroimen arrigarri artan, gero maitasunez bere baitan ausnartzeko. Ola iritxi bait zan, Euskera, liburuez gañera, euskaldunen aotik ere xurgatzera.

Gai ontan guk ikusi genion detallerik politena, kurpil bat izan zan: «Euskal-aditzaren kurpilla» esan dezakeguna. Euskal-berboak nunbait lan aundia eman zion, ikasten jardun zuanean. Bañan ain gogoz artu zuan berak ikasteko lan ori, etzan atertu arik-eta, lana errexteko, euskal-aditz-jostallu arrigarri bat sortu zuan arte: bi kurpil kartonezko, bata bestearen gañean sorginkiro erantsiak, biok elkarrekin eskondutaz, aditzaren edozein forma xitanpatean arkitzeko egoki-egoki eratutak...

Olako detalle asko izan bide zituan, gure Ayalde'ren euskal-ikasletzak.

\* \* \*

Ayalde'k zuan beste zer bat, idazle izateko goi-deia zan: jatorrizko goi-deia. Bere inprenta-lanak eta margolaritzak uzten zizkioten aldi ez ain luzeak, berak idazten ematen zituan: euskeraz idazten. Inhorrentzat probetxugarri izan zitezkean gaieri buruz zerbait jakingarri idazten. Etzan utsaren urren ariko lan ortan. Ezer jakingarririk esateko etzuanean, etzuan sartuko bere kuartillarik mekanotan; bañan bere ustez esan-bearreko zerbait zanean, bai, azkar asko.

Euskal-oiturak zituan geienetan bere idaz-lanetarako gai: oiturak, iltzeak ikusten zituan oitura tipikoak; eta paisajea, zenbait «aurrerapenek» ankapean leer-zorian daukan paisajea; bañan batez ere Euskeraren egoera tamalgarria... Gai oietan, artziñako Profetak bezela mintzatzen zan gure Ayalde, garratz, egia latz esanaz... inhoiz batzuren batzuek asarretu ere egin bait zitzaizkion orregatik...

\* \* \*

Bere lanak, artikulo-antzo aldizkarietan argitaltzen zituan; eta gero onentxuenak liburu-eran pillaturik eskeini irakurtzalleai. Bi liburu polit estimagarri osotu zituan orla-orla... Azkenekoa, bera zerura zijoakigun ordu beretsoetan argitara zana: «Ibar ixillean»...

Ez bait du edozeñek egiten beste orrenbesterik Euskeraren alde.

Beste askoren artean Euskeraren zer bat zuan ark oso arri-turik zedukana: bertsolaritza. Eta sakondu ere, ark, inhor gutxi bezela sakondu zuan gai ori; bertsolari-txapelketa zenbaitetan, Euskaltzaindiaren aginduz «Maiko» izateraño... Norbaitzuek arritzen bait ziran gauza orrekin. Bañan zergatirikan gabe; Ayalde'k, inhor gutxi bezela aztertutik zeukan bertsolaritzaren izaera berezi-berezia.

\* \* \*

Bene-benetan, Ayalde izan da gure artean Euskeraren eta Euskalerrriaren alorrean langillerik zintzo eta bizkorrenetan bat, ez nolanaikoa.

*Lekeu nartar Mammel'ek*